

## [Cast/Eusk] El 4 de noviembre llenemos Altsasu

ALTSASU FAXISMOAREN KONTRA :: 02/11/2018

Quieren venir a la plaza del pueblo y convertirnos en un símbolo, un símbolo de opresión.

### Castellano

Después de que Ciudadanos adelantase que quería venir a Altsasu, Vox se adhirió a ella. Hace pocos días el PP dijo que también venia. Vaya cuadrilla nos viene... **Quieren venir a la plaza del pueblo y convertirnos en un símbolo, un símbolo de opresión.**

Según dicen, vienen al pueblo a “defender la libertad”. ¿Qué libertad defienden? ¿La libertad de encarcelarnos? ¿La de mantener unos salarios miserables? ¿La de negar el derecho al aborto? ¿La de reprimirnos? ¿Libertad de golpear a refugiados en la frontera y de vender las armas para utilizar en guerras que los obligan a venir?... **No engañan a nadie, son fascistas que vienen a reivindicar un nuevo autoritarismo.**

Aquí no son bienvenid@s, lo queremos dejar claro ¡Las calles serán siempre nuestras! Aquí no es bienvenido lo que representan. Por eso desde Altsasu **hacemos un llamado a toda Euskal Herria, a todo el mundo, a los movimientos populares, colectivos y personas de todos los rincones a venir el 4 de noviembre a Altsasu**. Al movimiento antifascista, feminista, euskaltzale, internacionalista, antirracista, antirrepresivo, al movimiento estudiantil, a los espacios autogestionados... a traer sus reivindicaciones a Altsasu, para hacer frente al fascismo en todos sus frentes. Traed reivindicaciones, pancartas, txarangas, bafles... ¡Traed ganas de llenar el pueblo! **¡Llenemos Altsasu!**

Llenaremos Altsasu, haciendo nuestras nuestras calles. Evitando la confrontación física, marcharemos alrededor de la plaza, dejando claro a l@s fascistas que aquí no son bienvenid@s en una manera cargada de reivindicaciones y ambientada con música. Sin caer en provocaciones de fuerzas represivas ni fascistas para no dejarles espacio en que se sientan comod@s.

**El 4 de noviembre, a las 10:00, quedamos en el cementerio de Altsasu ¡Allí nos veremos!**

**Mil vueltas, mil colores ¡Contra el fascismo!**

**ALTSASU FAXISMOAREN KONTRA**

Plataforma Popular

31 de octubre de 2018

### Euskera

Ciudadanos Altsasura etorriko zela iragarri eta gero Vox ere atxikitzen zen. Duela egun gutxi

PPk etorriko dela esan zuen. Kuadrila ederra datorkigu... **Herriko plazara etorri eta sinbolo bilakatu nahi gaituzte, zapalkuntzaren sinbolo.**

Diotenez, gure herrira “askatasuna defendatzera” omen dator. Zein askatasun defendatzen dute? Gu espetxeratzeko askatasuna? Soldata miserableak mantentzeko askatasuna? Abortu eskubidea ukatzeko? Gu erreprimitzeko askatasuna? Errefuxiatuak mugan egurtu eta hauen sortzaileak diren armak hara eta hona esportatzeko askatasuna?... **Ez dute inor engainatzen, autoritarismo berri bat aldarriztatzen datozen faxistak dira.** Gure plazara etorri eta gure espazioak bereganatu nahi dutenak.

Hemen ez dira ongietorriak, eta argi utzi nahi dugu, kaleak gureak dira. Haien irudikatzen dutena hemen ez da ongietorria. Horregatik, **Altsasutik deia zabaltzen diogu Euskal Herri osoari, guztiei, txoko ezberdinako herri mugimenduei, eragile eta norbanakoei azaroaren 4an Altsasura etortzeko.** Mugimendu antifaxistari, feministari, euskaltzaleari, internazionalistari, antiarrazistari, antierrepresiboei, ikasle mugimenduari, gune autogestionatuei... zuen aldarriak Altsasura ekartzeko, hamaika frontetatik faxismoaren aurka egiteko. Ekarri aldarriak, pankartak, txarangak, bafleak... ekarri kaleak betetzeko gogoak! **Altsasu bete dezagun!**

Altsasu beteko dugu, gure kaleak gure eginez. Konfrontazio fisikoa ekidinez, plazaren inguruan ibiliko gara musika eta aldarriz beteriko giroarekin, faxistei hemen ongietorriak ez direla argi utziz. Indar errepresibo zein faxisten probokazioetan erori gabe, espaziorik ez diegu utziko gure herrian erosu sentitzeko.

**Azaroaren 4an, 10:00etan, Altsasuko hilerrian. Han ikusiko dugu elkar!**

**Mila bira, mila kolore, faxismoaren kontra!**

---

<https://eh.lahaine.org/cast-eusk-el-4-de>